# UDAL-BATZARRA 6/04

## UDAL-BATZARRAK, 2004ko APIRILAREN 29an EGINDAKO OHIZKANPOKO BILKURARI DAGOKION AKTA

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA:**
Fidel Azpiroz Arrillaga

**ZINEGOTZIAK:**
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Kepa De la Iglesia Sánchez
Jesus Mª Arsuaga Lizaso
Mª Carmen Egurza Salaberria
Silvia Dos Santos Leite

**IDAZKARIA:**
Nekane AGIRRESAROBE ETXEBERRIA

ANOETAko Udaletxean, 2004ko apirilaren 29an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizkanpoko Bilkura egin asmoz Fidel Azpiroz Arrillaga alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Kepa De la Iglesia zinegotzia bigarren puntuan sartzen da eta Juan Jose Martin Zubelzu, Nieves Alarco Martinez eta Mikel Zubillaga Zinegotziak ez dira etorri eta ez dute arrazoirik adierazi; idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

**1.- ESLEIPENDUNEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONARTZEA ETA ANOETAKO ARAU SUBSIDIARIOEN A19 "ITTURTXULO" AREAKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEA.**

2003ko otsailaren 6ean, Anoetako Arau Subsidiarioen A19 "Itturtxulo" arean egingo diren Babes Ofizialeko etxebizitzak esleitzeko oinarriak onartu zituen Osoko Bilkurak.

Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2003ko martxoaren 10ean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarkien bidez jendeari izena emateko deia egin ondoren, 265 eskaera aurkeztu ziren.

Visto que en sesión plenaria celebrada el 6 de febrero de 2003 fueron aprobadas las "Bases para la adjudicación de viviendas de Protección Oficial en el area A19 "Itturtxulo" de las Normas Subsidiarias de Anoeta.

Visto que realizada la correspondiente convocatoria pública, mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 10 de marzo de 2003 y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, se presentaron 265

solicitudes.

Epaimahai kalifikatzaileak eskaerak aztertu eta onartu eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onetsi zuen eta aipatu zerrenda Udaletxeko iragarki-taulan jarri zen erreklamazioak egiteko.

Visto que el Tribunal calificador aprobó la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos, siendo pulblicada, a efectos de reclamaciones, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.

Horrenbestez, aurkeztutako erreklamazioak aztertu eta gero, epaimahai kalifikatzaileak hala proposatuta,

Estudiadas las reclamaciones presentadas y a propuesta del Tribunal calificador.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Lehenengo.- A19 arean "Itturtxulo" egingo diren Babes Ofizialeko 58 etxebizitza eta bakoitzaren eranskinak (garajeak zein trastelekuak), sustapen pribatukoak, esleitzeko zozketa publikoan onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onestea, akta honekin batera doaz 1 eranskin gisa.

Primero.- Aprobar las listas definitivas de aspirantes admitidos y excluidos al sorteo público para la adjudicación de 58 viviendas (junto a sus corresonpdientes anejos: garajes y trasteros) de Protección Oficial de Promoción Privada en el area A19 "Itturtxulo" y que se adjuntan como anexo 1 a la presente acta.

Bigarren.- Behin betiko zerrenda horiek jendaurrean jartzea Udaletxeko iragarki-taulan hilabete batean; eta interesatuei adieraztea zerrenda horien kontra berraztertzeko errekurtsoa jar dezaketela hilabeteko epean edo administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa, uztailaren 13ko 29/1988 Legeak,Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duenak, aurreikusitako epe eta moduan.

Segundo.- Exponer dichas listas definitivas en el tablón de anuncios del Ayuntamiento por el plazo de un mes. Advirtiendo que los interesados podrán impugnar dichas listas presentando Recurso de Reposición en el plazo de un mes o Recurso Contencioso-Administrativo, en la forma y plazos establecidos en la Ley 29/98 de 13 de julio, reguladora de la jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Hirugarren.- "Anoetako Arau Subsidiarioen A19 "Itturtxulo" arean, Sustapen pribatuko 58 etxebizitza eta salmenta libreko 24 garaje eraikitzeko den Anoetako Udalaren lurzoru bat

Tercero.- Dar traslado del presente acuerdo a la empresa adjudicataria del "Concurso de enajenación de un solar propiedad del Ayuntamiento de Anoeta en el area A19 "Itturtxulo" de las NNSS de

besterenganatzeko lehiaketan" esleipendun geratu zen enpresari akordio hau jakinaraztean.

Anoeta, para la construcción de 58 viviendas de Protección Oficial de promoción privada y 24 garajes de venta libre".

## 2- ANOETAKO A19 AREAKO, ITURTXULO, LURZORUA EROSTEKO ETA BERTAN ERAIKITZEKO AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK ETA ESLEITZEKO PROPOSAMENA.

Arau Subsidiarioetako "Itturtxulo" izeneko 19 alorrean Anoetako Udalak duen orubea besterentzeko espedientea ikusirik, non, sustapen partikularreko 58 etxebizitza babes ofizialekoak egingo diren, horiei erantsitako garajeak eta trastelekuak, hornikuntzarako lokal bat eta beste 24 garaje salmenta librekoekin batera.

Visto el expediente para la enajenación de un solar propiedad del Ayuntamiento de Anoeta en el area A19 "Itturtxulo" de las NNSS para la construcción de 58 viviendas de protección oficial de promoción privada, garajes y trasteros vinculados, un local de equipamiento y 24 garajes de venta libre.

Lehiaketa publikora proposamen bakar bat aurkeztu dela ikusi ondoren, Bildo 5, S.Coop-ena alegia.

Visto que al concurso público se ha presentado una única propuesta por parte de Bildo 5, S. Coop.

Ikusi ondoren Raimundo Mendiburu Abad udaleko arkitekto aholkulariak egindako txostena.

Visto el informe del arquitecto asesor municipal D. Raimundo Mendiburu Abad.

Ikusi ondoren ARAUDI, S.L. aholkularitza juridikoaren txostena

Visto el informe de la asesoría jurídica ARAUDI S.L.

Ikusi ondoren Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak jaso duela Anoetako Udalak bidalitako mezua, udalaren area 19 "Iturtxulo" lurzoruaren trukatze-espedienteari buruz, lehiaketa publiko bidez egindakoa.

Visto que el Diputado Foral del Departamento para la Fiscalidad y las Finanzas ha tomado conocimiento de la comunicación efectuada por el Ayuntamiento de Anoeta sobre el expediente de permuta mediante concurso público, del solar propiedad municipal en el área 19 "Iturtxulo".

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Lehena.- Anoetako area 19ko "Iturtxulo" lurzorua, udalarena dena, BILDO 5 S. Coop. enpresari esleitzea. Lehiaketa zuzendu duen baldintza pleguetara eta enpresak horrek egin duen eskaintzara lotuta joango da esleipena.

Primero.- adjudicar el solar propiedad municipal ubicado en el área 19 "Iturtxulo" de Anoeta a BILDO 5 Sociedad Cooperativa con sujeción al Pliego de Condiciones que ha regido en el concurso y a la oferta presentada por dicha empresa.

Bigarrena.- behin betiko fidantza aurkeztu ondoren, BILDO 5 S. Coop. enpresari 2004-02-06an jarritako 93.170,38 euroko behin-behineko fidantza itzultzea.

Segundo.- previa presentación de la fianza definitiva devolver a BILDO 5 S. Coop. la fianza provisional presentada con fecha 6 de febrero de 2004 por importe de 93.170,38 €uros.

Hirugarrena.- esleipendunari udaletxera etortzeko eskatzea, dagokion administrazio-kontratua gauzatzeko. Horretarako, esleipendunak akordio hau jakinarazten zaion unetik 15 egun izango ditu eta aurretik honako baldintzak bete beharko ditu:

- 6.000 € ordaintzea lurzorua bereganatzearen kontzeptupean.
- Behin betiko fidantza ematea, etxebizitzen, lokalen eta garajeen trukatzea beteko dela ziurtatzeko. Fidantza 406.623,39 eurokoa izango da.
- 1.779,30 € ordaintzea enkante-lehiaketaren iragarpenerako.

Tercero.- requerir al adjudicatario para que en el plazo de 15 días desde la notificación del presente acuerdo se persone en el Ayuntamiento a fin de formalizar el correspondiente contrato administrativo, previo cumplimiento de los siguientes requisitos:

- Abonar el importe de 6.000 €uros en concepto de adquisición de suelo.
- Constituir la fianza definitiva por importe de 406.623,39 €uros a fin de garantizar el cumplimiento de la permuta de viviendas, locales y garajes.
- Abonar el importe de 1.779,30 €uros en concepto de anuncios correspondientes al concurso de licitación.

Laugarrena.- Fidel Azpiroz Arrillaga jaunak alkate-lehendakariari ahalmena ematea, behar diren dokumentu publiko edo pribatu guztiak sinatzeko, aginduaren formalizazioari dagozkionak

Cuarto.- Facultar al Alcalde-Presidente D. Fidel Azpiroz Arrillaga para la firma de cuantos documentos públicos o privados sean necesarios en orden a la formalización del presente acuerdo.

**3.- JARDUERA POSITIBOKO HIRUGARREN PLANA GARATZEN DUEN 2004 URTEKO ANOETAKO UDALAREN PROGRAMA ERAGILEAREN ONESPENA (EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN AUKERA BERDINAK IZATEARI BURUZ INFORMATZEKO, SENTSIBILIZATZEKO ETA TREBATZEKO JARDUERAK).**

Gizarte laguntzaileak eta kultur dinamizatzaileak Jarduera positiboko hirugarren plana garatzen duen 2004 urteko Anoetako Udalaren Programa Eragilea aurkezten dute; bertan, emakumeen eta gizonen artean aukera berdinak izateari buruz informatzeko, sentsibilizatzeko eta trebatzeko jarduerak proposatzen direlarik.

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehenengo.- Aurkezturiko "Anoetako Udalaren proiektu operatiboa 2004: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekintza Positiboen III Plana Garatzea" onestea.

Bigarren.- 6000 eurotako aurrekontua onestea. 1 0000.227.310.20.99 "310.02 emakumeen berdintasuna programa" partidaren kargua gastua xedatzea.

Visto el Programa Operativo del Ayuntamiento de Anoeta para el 2004 en desarrollo del tercer plan de acción positiva para llevar a cabo actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres presentado por la trabajadora social y la dinamizador sociocultural.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar el plan "Anoetako Udalaren proiektu operatiboa 2004: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Ekintza Positiboen III. Plana Garatzea" presentado.

Segundo.- Aprobar el presupuesto por importe de 6000 euros. Gasto a contabilizar con cargo a la partida 1 0000.227.310.20.99 "Programa 310.20 igualdad de oportunidades de la mujer" del Presupuesto del Ayuntamiento de Anoeta.

Azkenean, bilkurara etorritako ikus-entzuleek ondorengo interbentzioak izan zituzten:

Finalmente, se hace constar que el público asistente a la Sesión ha tenido las siguientes intervenciones:

2. puntuari dagokionez:

*Ikus-entzule batek ondorengo galderak egiten ditu:*

- *Proiektu zaharra aldatzen hasita dago eta jakin nahi nuke nork ordainduko duen?*

- *Beste alde batetik aldaketa hori dela eta garajeen kopurua gutxitu egiten da, zer soluzio ematen zaio honi?*
- *Baita ere azpimarratu nahi nuke etxebizitzen esleipendun bezala Bildo Gestek sinatuta karta bat iritxi zaigu etxera esanez 6.000 euroko dirua jaso dutela Bildo 5eko kapital sozialaren aportazio modura. Entitate hori ez dago erregistratuta eta adjudikatzaileak ez gara bazkideak. Beste aldetik beste idatzia ere jaso dugu non esaten den interesatuak Bildo Gesten sartzeko eskaera egiten duela bazkide izateko baldintzak betetzen dituelarik. Esan nahi dut idatziak bidaltzen duen pertsona Bildo 5en ez dagoela. Bildo 5ek kondizio batzuk jartzen ditu eta hau da Bildo Gest kontratatzea baina ez dakit ze kondiziotan eta nolako betebeharrak dauzkagun.Gainera komentatu nahi nuke "ampliación de capital" era honetara egiten da: erabakitzen du kapitala handituko dela eta baiezkoa bada eskritura publikoa egiten da eta gero hau kooperatiba erregistroan sartzen da. Beste alde batetik udaletxeak bere garaiean bidali zuen idatzi bat 10 eguneko epea emanez kooperatiban diru hori sartzen behartuz. Nik uste dut hau dela "coacción".*
- *Bestalde ez daukagu inongo preziorik, ez dakigu araudiak eskatzen duen prezioaren barnean egongo den ala ez.*
- *Bildo bost eta Bildo Gest ente juridiko ezberdin dira baina pertsona fisiko berdina, beraz, "esto es una autocontratación obligatoria". Guk behartuta gaude hor sartzen.*
- *Beste alde batetik dokumentazioa izkutatzen da. Azaroan egin nuen eskaera Bildo bostek konkurtsorako aurkezturiko dokumentazioa ikusteko aukera izan nezan eta atzo arte ez nuen aukera hori izan.*

*Jose Ignacio Otermin zinegotzi jaunak ondorengoa erantzuten du:*

- *Espedientearen adjudikazioa zergaitik atzeratu den denak dakigu; pleguak esaten duen bezela permuta bidez egingo da adjudikazioa eta espediente hau Diputazioari kontu eman gabe zegoen. Tramitazio hau egin eta gero Diputazioak "acuse de recibo" egiten du eta printzipioz hori nahikoa da baina oker ez banabil, gauza bat "acuse de recibo" egitea eta gero badaukazue atzera botatzea.*
- *Zer egin den denbora honetan? Beraiekin gestionatu, udalak ematen du terreno bat eta gero jasotzen ditu lokalak, garajeak eta etxebizitzak. Balorazioak, lege betetzeko, berdinak izan behar dute eta diferentzia bat dago. Orduan gure gestioak izan dira Diputazioa konbentzitzen nahiz eta udalak galdu, merezi zuela Babes ofizialeko etxeak egiteko. Teknikoak ez zeuden ados legea bete behar zelako baina azkenean gure gestioa ongi atera da eta onartu dute diferentzia hori.*
- *Nork ordaindu du diferentzia lehenengo eta bigarren proiektuaren artean? Printzipioz babes ofizialeko kalifikazioari buruz, hasieran promotorea udala agertzen zen eta Eusko Jaurlaritzak atzera bota zuen eta horregatik aldaketa egin beharko da. Akatsa aurreko korporazioarena izan zen eta noski udalak ordaindu egin beharko du hori. Ez kostoa, pleguan agertzen da proiektuaren kostoa adjudikatzaileak ordaindu beharko dutela.*
- *Garajeei buruz, egia da proiektu zaharrean esaen ziren 24 garaje udaletxearentzako eta orain 22, aldaketa bat izan da, pasiloa zabalagoa izan behar du baina kooperatibistak ez duzute ezer galduko, bakarrik udalak.*
- *Zergaitik kooperatibari adjudikazioa? Eskuetan duzu txosten bat esanez zer gertatu zen, plegua konkurtsora atera zenean inork ez zuen pentsatu kooperatiba bat etorriko zela pentsatzen ari ginen enpresario bat etorriko zela; azken finean, etorri zen bakarra kooperatiba izan zen eta gertatzen dena da alde batetik kooperatibari eman behar zaio adjudikazioa etxeak egiteko eta beste aldetik zozketan sartu behar da kooperatibista bezala eta nahastu egiten dira bi postura horiek. Hori ikusita, jakiteko ze jende hartuko zuen parte kooperatiban jakin behar zen dirua jarriko zuten ala ez, horrela azaltzen da txostenean. Berak esaten du ze pauso eman behar diren kooperatiba osatzeko alde batetik eta jakinez zer pertsona diren kooperatiban parte hartuko dutenak eta horretarako dirua jarriko duten ala ez. Kontutan eduki, hau egin zen epe batean eta gure asmoa*

*zen hau pasa ondoren adjudikatzea, gero denbora pasa egin da. Egia da abendutik gaur egunera zuek dirua jarri duzue, junta ez da egin eta gauzak ongi osatu gabe daude baina junta falta delako.*

*Ikus-entzule batek ondorengoa dio:*

- *Oso arraroa da, alde batetik saiatu zarete kooperatiba hori osatzen... baina gero benetan kooperatiba horrek zer jarrera eta zer gauza egiten ari den inondik ez zarete saiatu. Kooperatiban sartu edo ez sartu galdetzen den horretan ez du esaten kapitalik sartu behar den.*

*Alkateak erantzuten du:*

- *Kooperatibak ezin dira osatu kapital sozialik gabe.*

*Ikus-entzuleak dio:*

- *Aportazioa eginda dago eskatu delako. Nere ustez egokia izango litzateke jendeari galdetzea prest dagoen ala ez kooperatiban sartzeko. Zergaitik sartzen da udala miloi bat eskatzen? Udala ez da inor. Zuei berdin zaizue guk kapitala jartzea ala ez.*

*Alkateak erantzuten du:*

- *Udalaren helburua da bakarrik 58 etxebizitza horiek suertatuta gertatzen zaien pertsonei bermea ematea etxebizitzak egingo direla eta kooperatibaren funtzioa hori da. Aukera hori bermatzeko jakin behar da denak disposizioa duten ala ez.*

Beste aztergairik ezean, bilkura amaitutzat jotzen da iluntzeko zortzi terdiak direnean; guzti honetaz, ni Idazkariak fede ematen dudalarik.

Si más asuntos que tratar se levanta la sesión a las 20 horas 30 minutos; de todo lo cual, yo el Secretario doy fé.